

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Beizama*

Aurkibidea

# Udalerria: Beizama

## Sarrera



Urola Kosta eskualdeko herria, Gipuzkoako txikienetakoa (40 baserri eta 180 biztanle, gutxi gorabehera). Mendi artean dago, 480 metroko garaieran eta nahiko isolatuta. Inguruko herrien artean, Goiatz eta Bidania izan dira Beizamarekin hartu-eman handiena izan dutenak. Hiriei dagokionez, Azpeitiarekin izan du lotura handiena (10 Km), baina Tolosarako ere joera handia izan dute beizamarrek (15 Km). Hizkerari dagokionez ere, Urolako gainontzekoen nahiko berdintsua da, baina baditu zenbait berezitasun. Hiriguneaz gain, beste bost auzune txiki ere baditu: Aginamendi, Amenabar, Baztarkalealdea, Ilarraldea eta Urdanpileta. Gainera, Nuarbeko baserri batzuk ere Beizamakoak dira. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 182
- **Euskaldunak:** %97,3

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **19**
- Pasarteak: **43**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **4**
- Bideoak: **21**

## Proiektuak

- Azpeitiko ahotsak
- Beizamako ahozko ondarea
- Beizamako euskara belaunaldiz belaunaldi
- Euskal Herriko Ahotsak

- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak

## Hizlariak

### **Bixenta Aizpitarte Ugarte (1918-2002)**



Neskame ibili zen Ormaiztegin eta Azpeitian, baina 17 urterekin etxera etorri beharra izan zuen, ama 46 urterekin hil zitzaien eta. Bera zen 10 senideren artean zaharrena. 83 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

### **Inaxi Aizpitarte Ugarte (1920)**



Beizamako Zabale baserrian jaioa. Zortzi senidetan bigarrena. Donostiako Maria Cristinan aritu zen lanean, zerbitzari gisa, eta han lankide izan zuen neska batekin batera joan zen Parisera bizitzera, 1959an. Han etxeak garbitzen eta gaixoak zaintzen egin zuen lan, eta han egin zituen 30 urte. Erretiroa hartzeko garaia etorri zitzaionean, aldiz, Euskal Herrira itzuli zen bizitzera.

### **Joxe Mari Altuna Otaegi (1943)**



1943. urtean jaio zen Beizamako Zumistaingoikoa baserrian. Bere aita eta aitona musikari eta dantzari ezagunak ziren bailaran. Ezkongabea da. Baserrian bizi izan da beti eta grabazioa egin zitzaionean oraindik ere baserriko lanetan jarraitzen zuen.

### **Mari Lurdes Aranburu Mendizabal (1931)**



Zortzi senidetan zaharrena, Beizamako Ostatuberry etxean jaio zen 1931. urtean. Aita, Gabirian jaioa, Beizamako praktikantea izan zen eta hortik datorkio Mari Lurdesi medikuntzarako zaletasuna. Donostian egin zituen ikasketak eta Valentzian lortu zuen emagin titulua. 21 urterekin etorri zen Zumarragara emagin bezala lan egitera. Egunean bost erditze ere izan zituen, 60. hamarkadako garapen industrialak Zumarragako biztanle kopurua asko ugaritu zuenean izan zen hau. Azpeitiar batekin ezkondua, hiru seme-alaba izan zituen.

### **Inazio Beloki Elustondo (1924)**



Beizamako Ointzabal baserrian jaio zen 1924an. 10 senideko familia zuen. Aita Ointzabalgoa zuen eta ama Sarasola baserrikoa, beizamarrak biak. 7 urterekin hasi eta 12ra bitartean Beizamako eskolan ibili zen, baina gerra garaia iritsi eta utzi egin beharra suertatu zitzaion. Gero gau-eskolan ere ibili zen Beizaman bertan. 5 urterekin artzain hasi zen; etxetik zetorkion langintza horrekiko lotura. Negu garaia etxe inguruan pasa ohi zuen ardiekin eta udan Urrakin egoten zen. 31 hilabetez Melillan egon zen soldadu. Soldadutzan instrukzioetan eta "sanitario" modura jardun zuen.

### **Maritxu Biain Ezama (1936)**



Bidaniko Aritzaundieta baserrian jaio zen (Elola bailaran), baina haur txikia zela bere familia osoa Beizamako Lete baserrira etorri zen, Amenabar auzora. Hantxe hazi zen, Lete baserrian. Gerora, Aitzalde baserrira ezkondu zen (Ilarraldea auzoa) eta hantxe bizi izan da harrezkero, bere senarrarekin eta seme-alabekin. Elkarrizketa senarrarekin batera egin zitzaion: Jose Mari Esnaola Otaegi (1925).

### **Migel Biain Ezama (1938)**



Bidaniko Aritzaundieta baserrian jaio zen (Elola auzoan), baina umea zela bere familia guztiarekin batera Beizamako Lete baserrira etorri zen bizitzera, eta hantxe hazi zen. Baserritarra izan da lanbidez. Beste bi lagunekin batera egin zitzaion elkarrizketa: [Pedro Olazabal](#) (1935) eta [Manuel Otaegi](#) (1936).

### **Jose Maria Esnaola Otaegi (1925)**



Aitzalde baserrian jaio zen (Ilarraldea auzoa, Beizama) 1925. urtean, eta bizi guztia bertan igaro du. Aita ere bertan jaiotakoa zen. Baserriko lanak egin izan ditu. Baserrian ardiak ere izan dituzte beti eta gazta ere egin izan dute. Elkarrizketa bere emaztearekin batera egin zitzaion: Maritxu Biain Ezama.

### **Pepi Ezeiza Elustondo (1940)**



Beizamako Etxenagusigoikoa baserrian jaio zen, hamar senideren artean lehenengo, bi senide aingeru hil baziren ere. Anai-arreben artean zaharrena izanda, senideak zaintzea tokatu zitzaion umetatik. Umetako jolasak gogoan ditu (hanka-pilota, esku-pilota, sokasalto...), baita sendabelarrei buruz jasotako ezagutzak ere. Eskola bukatutakoan, Hernanira joan zen neskame eta han ezagutu zuen gerora senar izango zuen Antonio Alkain. Ezkondu ostean, Aian jarri ziren bizitzen eta baserriko bizimodua eraman izan du ordutik. Hiru seme-alaba izan dituzte.



### **Joan Labaka Labaka (1921-2001)**

Beizaman jaioa. Baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak ematen ditu.

### **Manuel Olazabal Iturralde (1936-2012)**



Beizaman jaio zen 1936an. Aita ere Beizamakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Oresakoa. Bere familiak Santa Agedan zegoen taberna hartu zuen eta bertan bizi izan zen. Ferratzaile, ile-moztaile, bideetako langile... eta beste hainbat lanetan aritua.

### **Pedro Olazabal Peñagarikano (1935)**



Beizamako Aginaga baserrian jaio zen (Agiñamendi auzoa) 1935. urtean. Baserritarra izan da lanbidez eta ehiztaria zaletasunez. Beste bi lagunekin batera egin zitzaion elkarrizketa: [Migel Biain](#) (1938) eta [Manuel Otaegi](#) (1936).

### **Maria Dolores Otaegi Iturritza (1930)**



Beizamako Aginaga baserrian jaio zen 1930. urtean. Ama Aginagan bertan jaiotakoa zuen; aita, berriz, Beizamako Elustondo baserrikoa. Tolosan josten ikasten ibili zen, besteak beste. Eloizpide baserrira ezkondu zen eta ordutik bertan bizi da.

### **Dionisio Otaegi Oruezabal (1931)**



1931. urtean jaio zen Beizamako Arreta baserrian eta bertan bizi izan da beti. Hainbat lanbidetan aritua da baserriko lanez gain. Horietako bat aipatzearren, Beasainera ura bideratzeko Murumendi zeharkatzen duen 300 metroko kanalaren obran jardun zuen.

### **Manuel Otaegi Txapartegi (1936)**



Beizamako Etxeberri baserrian jaio zen 1936. urtean (Kalealdean). Baserritarra izan da lanbidez. Beste bi lagunekin batera egin zitzaion elkarrizketa: [Pedro Olazabal](#) (1935) eta [Migel Biain](#) (1938).

### **Matilde Otaño Labaka (1924)**



Beizamako Urdanpileta baserrian jaio zen 1924. urtean eta bertan hazi zen. Azken urteotan Azpeitian bizi da familiarekin. Elkarrizketan bere senarra ere azaltzen da tarteka (Pedro Peñagarikano, 1913). Elkarrizketatzaileen artean bere iloba (Igone Arruti) eta erraina (Maritxu Arteaga) ere badaude.



### **Brigida Peñagarikano Labaka (1914-2005)**

### **Maria Dolores Ugarte Mendia (1932)**



Beizamako Soatxiki baserrian jaio zen, Ilarraldea auzoan. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bizi guztia Beizaman egin du, baserrian. Baserriko eta mendiko lanak ondo ezagutzen ditu, baita herriko kontu zaharrak ere. Senarra ere beizamarra, Zabale baserrikoa.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Baserria**

#### **1.1. Astero egiten zuten ogia; gariaren inguruko lanak**

- **Hizlaria(k):** Ugarte Mendia, Maria Dolores

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lasa Goenaga, Ander - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEI-001/027
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:52:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Garia  
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Ogia astean behin egiten zuten. Urritik azarora bitartean egunero taloak egiten zituzten. Garia kutxan gordetzen zuten. Garia eskuz nola jotzen zuten azaltzen du. Garia garbitzeko makina zuten eta aita beste baserri batzuetara ere joaten zen.

### Transkripzioa

- Eta, errotako kontuak, nola izaten zian orduan? Gariya-ta hartu? Edo artua, gariya, biak?
- Ba bik, bik, bik.
- Eta, astero, hilero, o nola izaten zan?
- Ez, ez. Oain, ogiya astero iten zan, jenealen zapatutan iten zan ogiya. Baiño ez, errealdi bat eo bi o hiru, igual, kargatu ta. Artua´re bai, ordun artua´re erretzen zan. Talok´e, berriz, hasi, urrin o azaron hasi eta martxon azkenearte, goiz ta iluntze, eunero talok. Jaia ez, jaien libratzen giñen. Baiño...
- Bestela talok.
- Talok. Ta, gaiñea, guren ama zana zan talok erretzen, bueno...!
- Eta jaian ogiya?
- Jaien ogiya, zoragarriya zan. Dana pandero.
- Zuk, gariye o artue behin jasoko zenuen?
- A, bai, urten behin.
- Ta geo, hori ze gordetzen zan, gari bezela o irin bezela?
- Gari bezela. Han zeren guren bi arka haundi. Haik bete in ber dia bi arka haik, e! Auskalo... Anegia badakizu...
- Ta hainbestetik behin errota jun, iriñe in, "ra" ta, iriñe gastautakun berriz´e?
- Bai, berriz´e, kargau ta berriz´e jun. Ta artua´re berdin. Ta artua oillontzako, ordun etxeko artua dana oillontzako. Ba al dakik zenbat soro, ta zenbat, zenbat lan iten zan? Ordungo gari ebaitzek eta. Ni eskuz´e gariya jotzen ezaututa nao etxen, e! Eskun, aitta ta morroia. Harri haundi bat ipintzen da /ipintzea/. Ez dakit, ba al dakizu nola ipintzen dan eskuz jotzeko?
- Kontatu, nola?
- Eee... gastau zien guren, e! Harri haundi batzuk.
- Losak o?
- Bai, losak, hori da, lixo-lixok, ahal zana lixok. Eta hola, egur baten altu jarri, ta han jarri harri hori, hola, kaidakin, eta han, azaua esaten zaio, lotuta jarritakoa, ta harekin. Baiño berue ber izeten zan. Eta gu kamiñon kontra, ta kamiñua´re berua da. Kotxeik ez zan ordun pasatzen. Ze? urten ez zan kotxe bat pasauko ta. Ta kamiñon dana zabaldu, metak iten zien gariya ebaitakon, metak ekarri etxea, ta kamiñon zabaldu dana. Eta attai ta morroiari, banaka-banaka, jo ahala, kamiñotik hartu eta eamaten. Ni ezaututa nao eskuz jotzen´e.
- Zuk aitai eman...
- Eta morroiari´e bai.
- Ta aitak jo.
- Ta aitak´e bai, bai. Ta geo hua pasatu...

- Eta jo, harriyan kontra jo.  
 - Harriyan kontra jo.  
 - Eta...  
 - Eta gero, makinia eoten zan.  
 - Aliak...  
 - Bai, aliak ganbaran. Jeneralen, paitia (pareta) aurren dala, gutxiyo zabaltzeko, bestela, badakizu, zipriztiñakin-ta. Ta gero, makinie, gariya garbitzeko. Pena eman zian. Guren aitta bi-hiru etxetan ibiltzen zan, makina horrekin garbitzen, Galberdin. Joxe Mari ezautze al dek, Galberdikua?  
 - Ez.  
 - Ez... Pakon anaia? Bai. Operauta omen zeok Pako. Etorriya al da?  
 - Ez dakit, ingresaute zala badakit, baiña...  
 - Bai... Ta han utzi, zahartu in zala ta, makinia. A ze penia eman zian. Geo makina hortan pasatu...  
 - Garbitu, zertako? Hautsa kentzeko, o?  
 - Eske... bai, zea, "aokia" esate zaio, garin... Tapauta eoten da gariya, ez da bistan eoten alia. Hua tapauta eoten da. Ta hua jotzen ai dala, ba, aokia, azal hoik geatzen dia... Bai, ta geo hoik makinan pasatu. Ta makinari erain in behar diozu eskukin, ta, ordun, aoka horik haizek bota iten dittu, ta saren goitik behera gariya, behera, behera [etortzen da].  
 - Gariya pisuakin behera.  
 - Bai, behera etortzen da. Ta zuk hua... txispahie esaten diou /esateiyou/. Badakizue zer dan txispahia? Hemen beheraldin-ta galbahia esaten diue /esateyue/, baiña guk beti txipahia. Babia ta pasatzeko ta...  
 - Zer [...] hori?  
 - Bai, bai. Guren egurrezkua, hantxe zeok, ear askue, gaiña. Auskalo zenbat urte dauzken.  
 - Txispahie?  
 - Txispahie, guk beti txispahie esaten deu. Ta gero...  
 - Ta han pasatzen zan garia?  
 - Ez, makinan etorri iten zan goitik behera, ta txispahia... Eske gariya etortzeko zeak 'e, sartzeko tarte txikiya izaten zun goitik behera, ta txispahi horrek, ba, holako altura bat eo hola eukitzen zun, hola. Ta gero txispahi hori iten zendun trapu batekin tapatu, bestela zulotik garik alde ingo lizuke. Iten zan hoi trapu batekin zeatu, tapatu iten zan txispahi hori. Ta hoi jartzen zan han azpin, ta hua, aitta zeatzen, astintzen, lasto horik anaia [... eraiten], ta gu txispahi hoi hartu, betetze zanen, jo-ta korrika arkaa bota, bestia han jarri, txandaka... Ni etortzeako beteko zan igual bestia. Zenbat lan! Jesus, Maria ta Jose!

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Maisu-maistrak eta apaiz bi Beizaman

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Mendizabal, Mari Lurdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gaston Balerdi, Izaskun
- **Erref**: BEI-021/003
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:02:22. **Bukatu**: 00:03:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Beizama herri txikia zen, baina euren eskola zeukaten. Don Jose Agirre zen maisua, Itsasokoa, eta bere emaztea maistra. Orduan ume asko zeuden eta neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan. Bi apaiz zeuden herrian.

### Transkripzioa

- Eta han zeuen Beizaman, herri txikiya zan, baño, bueno, gendukun gure eskola, "la señorita Jovita" ta bere gizona zan maixue "de Ezkioga-Itsaso", Don Jose Agirre. Eta hantxe edukau giñen gu, guk hantxe ikasi gendun. Bi apaiz urte haietan...

- Irakasle moduan?

- E?

- Irakasle bezela edo ez? bi apaiz?

- Bi apaiz, herriyen bi apaiz.

- Hori gauza haundia zan e.

- Beizama, nik ez dakit ba ze, ze habitante eukiko zitun. Karo, familiyak zien numerosas: gu zortzi, este... "el maestro ese y la maestra Jovita de Zaldibia y él de Ezkioga-Itsaso" hoiyek'e beste zazpi. "Eran familias... éramos familias numerosas". E? Ta neskak gendukun gure eskola eta mutillek zeuken bere eskola.

## 2.2. Aita baserriz baserri jendea atenditzen

- **Hizlaria(k):** Aranburu Mendizabal, Mari Lurdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Erref:** BEI-021/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Hamahiru urtera arte egon zen eskolan. Gizarte Segurantzaren jarri zutenean, aita Azpeitira bidali zuten langileei kontsulta pasatzera. Honez gain, baserriz baserri ibiltzen zen jendea atenditzen, oinez. Gaixo zeudenak Tolosara bidaltzen zituen.

### Transkripzioa

- Eskolan ze urte, zenbat urte arte?

- Hamahiru urte arte.

- Hamahiru urte arte.

- Bai, eon nitzen ni han ta nere senidek'e bai. Gero ya nere aitte handik jetsi Azpeitira, "ya había seguridad social" fabrika Agirre, Damaso-Azkue eta zeuen obrero asko, eta ordun aittek pasatzen zun konsulta bat Azpeitin ta etortzen zien "los obreros", uain anbulatorioa juten dien bezela. Eguardiyen, en general, ordubatien eo, hamabiyetan ertetzen zuen, ta ordubete hori izeten zan, ba, indiziok jarri, "hacer curas"... Hori zan aitten lana. Ta aitte ibiltzen zan baserritik baserrira. Halako baserritik hots eitten ziyen, "ba aittona ez dau ondo", ta aitte jun itten zan, ta beak diagnostikatu behar zun, beak. Beantzako baño gehiyo balin bazan ya bialtzen... Tolosaa o bestela Donostira, pero en general Tolosaa.

- Bialtzen zon gaixo zeona.

- Bai, gaixo zeona ospitalea o "la clínica de San Miguel en aquellos años".

- Nola ibiltzen zan aitte batetik bestea?

- Aitte? Oiñez. Eta gero bizikleta bat. Baiño bestela dana oiñez. Ta gendukun txakur bat, Pintto, ta txakur hure etortzen zanen etxea, ba, igual etxen eongo zan abiso bat halako baserrita juteko, ta amak, ba “pasau ta etxoin hamen belaxe etorriko da”. Don Jose hots eitten ziyen gure aittei. Eta txakurra azaltzen zan aurrena, Pintto, ta txakur hura azaltzen zanen, amak esaten zion han zain zeonai: “badator”.

- Txakurre aurretik zekarren.

- Txakurre etorri da ta lau miñutura o lehen aitte azaltzen zan. Eta han zeona, pues, abisue, o halako miñek dauzke, o eroi in da, o “lo que sea”, gaixo baten... kalentura haundikin dao... Eta berriro jutun zan aitte hori, billa etorri zan gizon horrekin beste baserri batea. Porke Azpeitik zeuzken baserri asko; Urrestillan “ni te quiero decir, porque la zona de Urrestilla, Aratz-erreka, Nuarbe”... barriyo hori ezautzen al dezu? E? Pues baserri hoiyek danataa aitte ibiltzen zan, urte haiyetan. Aizu, eta hango jendek fede haundiye zun. Ez nere aitte zalako, baiño...

- Ona zan, praktikante ona zan.

- Praktikante ona zan ta urte haiyetan, pues, danatetik in behar izaten zuen.

### 2.3. Aitari laguntzen

- **Hizlaria(k):** Aranburu Mendizabal, Mari Lurdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Erref:** BEI-021/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Botikak Azpeitiko botikatik ekartzen zituen aitak. Injekzioak hiru ordurik hiru ordura jarri behar izaten ziren eta Mari Lurdesez laguntzen zion aitari lan horretan, hamabost bat urte zituela. Hor hasi zen bere bokazioa.

#### Transkripzioa

- Botikak-eta ibiltzen zittun edo gehiau zan senda-belarrak...?

- Botikak-eta farmazitik. Azpeitin farmazi bat bazeuen ta zenbat aldiz jutun giñen farmazi hortaa halako tokirako, halako esto. Bai, bai, bai, bai. Nik ikasi nun penicilina, extrectomicina... ba, urte haietan hiru ordutik hiru ordua jartzen zien “esas indicciones, no?”. Eta aitte ez zeuken juteik hiru urtetik... hiru ordutik hiru ordura, ta ni jutun nintzen baserri hoiyetaa, ta hortxe hasi zan nere bokaziyue. Ikasi nun indiziyo hoiyek jartzen, eta aitte jun berrin hiru ordutik hiru ordua ni geatzen nitzen baserrin.

- Zenbat urtekin hori?

- Ba, aizu, hamalau? hamabost?

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Azpeititik etxerakoan (BEI-001/002)**

Lagunartean, Azpeitira atera ziren; eta, amak emandako diruarekin taxia ez ordaintzearren, etxerakoan pasatako pasadizoa kontaktzen du.

### **2. Auzoko nagusiekin lotsatan (BEI-001/004)**

Agureak iluntzeetan kalera jaisten ziren eta Doloresek eta lagunak lotsa izaten zuten etxerakoan haien paretik pasatzeko.

### **3. Aste Santuan musika debekatua (BEI-001/007)**

Aste Santuan eta 40 egunez ez zen izaten soinua jotzerik edo kantatzerik. Beizamako soinu-jole baten aipamena egiten du. Soinua festa jakinetan bakarrik izaten zen.

### **4. Lotuan dantza egitea bekatu (BEI-001/008)**

Apaizak gramola jarri zueneko; ezkututik begiratzen zituen dantzan ari zirenean, eta neskek buelta hartzerakoan gona plisatuei eutsi behar izaten zieten, ezer ikus ez zedin.

### **5. Herdoilaren aurkako errezoak etxez etxe (BEI-001/009)**

San Juanak pasatzean, apaiza etxez etxe ibiltzen zen errezoak egiten, herdoilik izan ez zedin; ordainetan, oilasko pareta ematen zitzaion. Pasadizo bat kontaktzen du. Baserrietan jasotako oilaskoak saldu egiten zituen apaizak.

### **6. Beizamako apaizarena (BEI-001/010)**

Beizamara joaten zen apaiz baten aipamena egin, eta pasadizo bat kontaktzen du.

### **7. Aberats eta pobreentzako hiletak (BEI-001/011)**

Norbait hiltzen zenean bi hileta ezberdin egiten ziren, lehenengoa aberatsentzat eta bigarren mailakoa pobreentzat. Gurasoren bat hilez gero, seme-alaba bakoitzeko apaiz bat eraman behar izaten zen hiletara. Hiletan inguruko kontuak. Bi urtean jantzi beltza eraman behar izaten zen luto modura eta ez zen dantza egiterik ere izaten.

### **8. Eliza barruko hilobiak (BEI-001/012)**

Eliza barruan hildakoentzat hilobiak egoten ziren eta bakoitzean trapu beltz bat jarri ohi zen urtebetez. Argizaria erretzen jartzen zen hilobi bakoitzaren ondoan.

### **9. Bezperetara joatea derrigorra (BEI-001/013)**

Eskolan neskek eta mutilak banatuta ibili ohi ziren. Urriko lehenengo igandean festa egiten zen eta bezperetara joan behar izaten zuten; prozesioa egiten zen.

### **10. "Aimariatakoa" eta beste kanpaiak (BEI-001/015)**

Erromerietara Bidanira, Goiatzera eta inguruetara joaten ziren oinez. Iluntzean "aimariatakoa" kanpaia jotzen zenean etxera joaten ziren. Elizako kanpaien inguruan hitz egiten du.

### **11. Seroraren elizako zereginak (BEI-001/017)**

Ekaitza zetorreanean beste kanpai klase bat jotzen zen eta konjuruak egiten ziren. Serorari artoa eta garia ematen zitzaizkion kanpaia jotzeagatik. Seroraren lana eliza txukun mantentzea izaten zen. Apaizaren inguruko kontuak kontaktzen ditu.

### **12. Menda eta mendafina etxeak garbitzeko (BEI-001/018)**

Serorari etxe bakoitzean etxeko jeneroa ematen zioten kanpaia jotzeagatik. Eliza mendarekin garbitzen zuen serorak eta Doloresek etxea ere bai. Makila batean menda hostoak jarri eta harekin igurtziz usaina zabaltzen zuen. Menda eta mendafina zer diren azaltzen du.

### **13. Hiletetan ere etxekoei bazkaria (BEI-001/020)**

Seroraren inguruko kontuak. Orduan ez zen lorerik izaten elizan, kandelak jartzen ziren. Kandelak nola pizten zituzten azaltzen du. Norbait hiltzen zenean, 8 egunera "honra" egiten zen. Baserriko jendea diruz urri ibili arren, hiletan familia osoari bazkaria ematen zitzaion.

### **14. 1932an jaioa Beizamako Soatxikin (BEI-001/022)**

Bere burua aurkezten du. 1932an jaio zen Beizamako Soatxiki baserrian. Abizenen inguruko aipamena egiten du. Gurasoak beizamarrak zituen eta baita senarra ere.

### **15. Azokara Tolosara eta Azpeitira (BEI-001/023)**

Beizamako baserrien inguruan hitz egiten du. Zapatuetan Tolosara eta asteartetan Azpeitira joaten ziren baserritarrak azokara. Beizamatik 62 emakume joaten omen ziren azokara. Matxinbentako eta Nuarbeko baserri batzuk Beizamako lurretan daude. Beizama herri aberatsa izan da beti baso eta lurretan.

### **16. Nuarbeko otarregileak (BEI-001/024)**

Nuarben otarregileak ziren gehienak. Gaztainarekin egiten zen otarrea. Nafarroatik inguratutako basomutilak txondorra egiten aritzen ziren. Doloresek etxetik ikusten zituen mandazainak.

### **17. Bost errota Beizama inguruan (BEI-001/025)**

Beizama eta inguruetan bost errota zeuden. Errotara ura eramateko kanala izaten zen. Jendea errotatik mantentzen zen; errotan laka utzi behar izaten zen, errotara eramandakoaren hainbesteko bat.

### **18. Ganbara eta sabaia (BEI-001/028)**

Gari kutzak ganbaran gordetzen zituzten. Ganbara eta sabaia zer diren azaltzen du. Etxeko ate ezberdinen izenak aipatzen ditu.

### **19. Gariaren inguruko lanak (BEI-001/029)**

Garia maiatz hasieran ereiten zuten. Garia kentzean, San Lorentzoetan, arbia egiten zuten. Lurra lantzeko erabiltzen zituzten tresnak aipatzen ditu. San Antonioetan arto betetzea nola egiten zuten azaltzen du.

## **20. Arto eta babarrun biltzea (BEI-001/030)**

Artoa eta baba batera botatzen zituzten eta garai beretsuan ateratzen ziren. Arto punta biltzea eta babarrun biltzea nola izaten ziren azaltzen du. Azarorako lanak bukatzen zituzten. Arto eta baba biltzea azaltzen ditu.

## **21. Arto zorroa jan egiten zen (BEI-001/031)**

Arto zorroa jateko aprobeztatzen zen. Belarretara kanpora joaten ziren, etxe inguruan belar gutxi baitzen.

## **22. Senideen artean zaharrena (BEI-010/002)**

Gaztetan neskame ibili zen Azpeitian eta Ormaiztegin. Baina 17 urte zituela, ama hil zitzaion, eta bera zenez 10 anai-arrebatan zaharrena, etxera itzuli behar izan zuen. Geroago, anaia txikiena ere hil egin zen.

## **23. San Pedroak (BEI-010/005)**

San Pedroak lehen nola ospatzen ziren kontatzen du.

## **24. Ezkontza (BEI-010/007)**

Bera ezkondu zenekoa kontatzen du: zer-nolako apaingarriak izan zituen, eta eguna nolakoa izan zen.

## **25. Apaizarentzako oparia (BEI-010/015)**

Lehenengo apaizari buruz hitz egiten du. Behin oparia egin nahi izan zioten, eta galtzontziloak oparitu zizkioten.

## **26. Emagin ikasketak Donostian (BEI-021/008)**

Batxilerra amaitu zuenean emagin izateko ikasketak egin zituen Donostian. "Revalida" delakoa Valladoliden egin zuen. Lehen, ikasketa bako emakumeak ibiltzen ziren emagin. Donostian egon zenean osaberenean egiten zuen lo. Ikasketak amaitu ondoren, Valentziara joan behar izan zuen titulua ateratzera.

## **27. Zumarragara emagin (BEI-021/010)**

Hogeita bat urte zituela Zumarragara etorri zen emagin. Modista batekin hasi zen bizitzen, urte betez. Ezkondu eta hiru seme-alaba eduki zituen.

## **28. Gau eta egun emagin lanetan (BEI-021/011)**

Egun edo gaueko edozein momentutan etortzen zitzaizkion ate joka erditzeren bat zegoela eta. Mari Lurdes emakumea ikustera joaten zen jarraian.

## **29. Hasierako esplorazioak (BEI-021/012)**

Emagin botikina erakusten du. Lehenengo egiten zuena esploratzea izaten zen, umea buruz edo ipurdiz zetorren jakiteko. Estetoskopoarekin umea nola zegoen entzuten zuen. Txarto baldin bazegoen, berak laguntzen zien Donostiara emakumeei. Umea asko atzeratzen bazen injekzioa ematen zion Mari Lurdeseke amari.

### **30. Plazenta lurperatu (BEI-021/014)**

Plazenta lurperatu egiten zuten baserrietan. Emakumeak ez bazuen plazenta osorik kanporatzen, Donostiara edo Beasainera biiltzen zuen Mari Lurdesez. Plazentaren zatiren bat ez kanporatzeak hemorragia dakar.

### **31. Haurdun zeudenei kontsulta hilero hilero (BEI-021/016)**

Hilero hilero haurdun zeudenei bisita egiten zien Mari Lurdesez: tentsioa hartu, analisiak, umearen posizioa behatu... Arazorik zegoela ikusiz gero, Tolosako mediku batengana bidaltzen zituen emakumeak.

### **32. Ingurukoak emakumeari laguntzen (BEI-021/020)**

Gizonak beti egoten ziren erditzeetan laguntzen. Askotan etxeko amama ere bertan izaten zen edo bizilaguna. Emakumeek ohean egiten zuten umea. Umea pixka bat itota jaiotzen bazen, ur berotan eta hotzetan sartzen zuen Mari Lurdesez.

### **33. Lehenengo erditzea (BEI-021/022)**

Emagin hasi zen lehenengo hilabetean lau erditze baino ez zituen eduki. Lehenengo erditzea gogoratzen du: berrogei urte inguruko emakume bat zen. Herriko medikuak lagundu zion lehenengo erditze hartan.

### **34. Bost erditze egun bakar batean (BEI-021/024)**

Egun bakar batean bost erditze eduki zituen.

### **35. Hasieran bizikletaz (BEI-021/025)**

Hasieran bizikletaz mugitzen zen etxe batetik bestera. Gero, motozikleta bat erosi zuen eta azkenean kotxea. Lehen ez zegoen biderik eta dena oinez egin behar izaten zuten. Gaez taxi-gidariak eramaten zuen.

### **36. Umea bainatu eta jantzi (BEI-021/027)**

Umea jaio ondoren, Mari Lurdesez berak lotzen zion zila. Ondoren, masaje moduko batzuk ematen zizkion amari plazenta kanporatzeko. Umea ere berak bainatzen zuen eta baita jantzi ere. Umeari jartzen zizkieten jantziak azaltzen ditu.

### **37. Hogeita lau ordura bularrean jarri (BEI-021/028)**

Lehenengo hogeita lau orduetan ur pixka bat eskaintzen zioten jaioberriari. Hogeita lau ordu pasatu eta gero, bularrean jartzen zuten umea. Orain jaio eta segituan jartzen dute bularrean.

### **38. Umea jaio ondoko zaintzak (BEI-021/030)**

Umea jaio eta gero, egunero joaten zen Mari Lurdes amarengana, umearen zila erori arte. Umeari kurak egiten zizkion eta ama garbitu egiten zuen. Bularrarekin ere arazoak edukitzen zituzten zenbaitek.

### **39. Kanpoko jendea lanera herrira (BEI-021/036)**

Zumarragara jende asko etorri zen kanpotik: Andaluzia, Zamora, Extremadura... Hauek logelak alokatzen zituzten. Bizilagun baten etxean, logela batean, lau gizonek egiten zuten lo. Urte haietan lan asko zegoen Zumarragan.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com